Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko ekainaren 24a, astelehena — 118 — Lunes, a 24 de junio de 2019

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*042/19 Foru Agindua, ekainaren 6koa, zeinaren bitartez, energia berriztagarrien erabilera zein aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa toki mailan bultzatzeko diru laguntzen 2019ko deialdia ebazten den.*

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko foru diputatuak, 2019ko ekainaren 6an, ondoren argitaratzen den Foru Agindua eman zuen:

«2019ko otsailaren 12ko Diputatuen Kontseiluaren Erabakiaren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko iraunkortasuna eta ingurumeneko hobekuntza sustatzeko jarduerak egiten dituzten udalei, mankomunitateei, eskualdeko erakundeei, elkarteei eta enpresei zuzendutako diru laguntzen oinarri arautzaileak onartu ziren (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 39. zk., 2019ko otsailaren 26koa), eta hiru diru laguntza lerro desberdinen 2019ko deialdia egin zen.

II. eranskinean, energia berriztagarrien erabilera zein aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa toki mailan bultzatzeko diru laguntzak emateko araubideko oinarri arautzaileak jasotzen dira. Diru laguntzak elkarrekiko norgehiagokaren bidez emango dira.

2019ko deialdiak berrehun mila eta berrogeita hamar euroko diru laguntzak baimentzen ditu (250.000,00), aurrekontuko kontu sail hauen kargura:

1.0910.130.461.01.01.2019: 30.000,00 €.

1.0910.130.461.06.01.2019: 30.000,00 €.

1.0910.130.470.00.02.2019: 30.000,00 €.

1.0910.130.761.01.01.2019: 100.000,00 €.

1.0910.130.761.06.01.2019: 30.000,00 €.

1.0910.130.770.00.01.2019: 30.000,00 €.

6. oinarri arautzaileak ezartzen du ezen, behin Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu teknikoek eskaerak aztertuta, balioespen txosten bat egingo dutela, eta hori Ebaluazio Batzordeak aztertuko duela, zeinek ebazpen proposamen bat emango duen, non egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko baita, eta eskumeneko organoari emango baitio onar dezan.

Eskaeren epea igaro ondoren, eta Ingurumen Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek 6. oinarriak xedatzen duena betez, moduan eta epean aurkeztutako eskaeren balioespena egin dute eta txosten bat prestatu dute, zein Ebaluazio Batzordearen eskuetan jarri duten. Horrek, 2019ko maiatzaren 13ko bileran, txostenean oinarrituta, ebazpen proposamena eman du, zeinek jasotzen duen diru laguntza ematea 7.2 oinarriak eskatzen dituen gutxieneko 40 puntuak lortu dituzten entitateei, baita bi entitate eskatzaile baztertzea ere.

8. oinarriak adierazten du ezen Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuari dagokiola diru laguntzak emateko prozedura ebaztea, eta Ebazpenak identifikatu egingo dituela entitate eskatzailea eta aurkeztutako proiektua edo jarduerak; diru laguntza jasoko dutenentzat, berriz, ebazpenak

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

*Orden Foral 042/19, de 6 de junio, por la que se resuelve la convocatoria 2019 de las subvenciones para el impulso a nivel local del uso de las energías renovables así como del ahorro y la eficiencia energética.*

El Diputado Foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas ha dictado con fecha de 6 de junio de 2019 la Orden Foral que a continuación se publica:

«Mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 12 de febrero de 2019 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 39, de 26 de febrero de 2019) se aprobaron las bases reguladoras de las subvenciones destinadas a ayuntamientos, mancomunidades, entidades comarcales, asociaciones y empresas que realicen actuaciones que promuevan la sostenibilidad y la mejora medioambiental del Territorio Histórico de Gipuzkoa, efectuándose la convocatoria 2019 de tres líneas de subvención diferentes.

En el anexo II se recogen las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para el impulso a nivel local del uso de las energías renovables así como del ahorro y la eficiencia energética, que se otorgarán en régimen de concurrencia competitiva.

La convocatoria 2019 autoriza ayudas por importe de doscientos cincuenta mil euros (250.000,00) con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

1.0910.130.461.01.01.2019: 30.000,00 €.

1.0910.130.461.06.01.2019: 30.000,00 €.

1.0910.130.470.00.02.2019: 30.000,00 €.

1.0910.130.761.01.01.2019: 100.000,00 €.

1.0910.130.761.06.01.2019: 30.000,00 €.

1.0910.130.770.00.01.2019: 30.000,00 €.

La base reguladora 6.ª establece que analizadas las solicitudes por los servicios técnicos de la Dirección General de Medio ambiente, elaborarán un informe de valoración que se someterá a la Comisión Evaluadora, la cual emitirá una propuesta de resolución con el resultado de la evaluación efectuada y la elevará a órgano competente para su aprobación.

Transcurrido el plazo de solicitudes y en cumplimiento de lo dispuesto en la base 6.ª los servicios técnicos de la Dirección General de Medio ambiente han realizado la valoración de las presentadas en forma y plazo, elaborando un informe que han sometido a la Comisión Evaluadora, la cual, reunida el 13 de mayo de 2019 ha emitido propuesta de resolución en base al mismo que contempla la concesión de subvención a las entidades que han obtenido el mínimo de 40 puntos exigidos por la Base 7.2, así como la exclusión de dos de las entidades solicitantes.

La base 8.ª señala que la resolución del procedimiento de concesión corresponde al diputado foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, y que identificará a la entidad solicitante y el proyecto o actuación presentada, estableciendo para aquellas a las que se conceda subvención, el por-

EK\CV GAO-I-2019-04036

ezarriko duela zein ehunekotan izango den diruz lagundua eta emandako laguntzaren gehienezko zenbatekoa; kontuan izanda ezen, 7.3 oinarriaren arabera, proiektu bakoitzari emandako diru laguntzaren zenbatekoa diruz lagungarriak diren gastuen (BEZik gabe) ehuneko bat izango dira, betiere oinarri honen lehen puntuan azaldutako irizpideen arabera egindako balioespenean eskuratutako puntu kopuruaren parekoa. Dena dela, ezin izango da izan diruz lagungarriak diren gastuen % 75 baino handiagoa plan eta azterketatan eta % 50 baino handiagoa energia berriztagarriak erabil tzen diren proiektuetan, ezta 30.000 euro baino andiagoa eskaera bakoitzerako. Ez dira diruz laguntzaren deialdi honetan sartuko kostu lagungarria 3.000 euro (BEZik gabe) baino txikiagoa daukaten jarduerak.

Era berean, aipatutako 8. oinarriaren arabera, jarduera bati diru laguntza ukatu bazaio, ukatzearen arrazoia zein izan den adieraziko da.

Diru laguntzen 2019ko deialdia jasotzen duen IV. eranskineko 4. zenbakiak adierazten duenez, Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 45.1.b) artikuluan ezarritakoari jarraituz, diru laguntzei buruzko ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat hartuko da, lege ondorio guztietarako, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Era berean, aipatutako argitalpenarekin, diru laguntzei publizitatea emateko obligazioa betetzen da, hala aurreikusten baitu 17.1 artikuluan 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak.

Horregatik, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako foru diputatuak,

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* Foru agindu honen I. eranskinean adierazten diren diru laguntzak ematea, 2019ko diru laguntzen deialdiari dagokionez, energia berriztagarrien erabilera zein aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa toki mailan bultzatzekoak baitira, eta entitate onuradunen alde xedatzea, adierazten diren zenbateko partzialengatik, ehun eta hirurogeita hamahiru mila laurehun eta hamahiru euro eta hogeita bi zentimoko gastu bat (173.413,22 €), aurrekontuko kontu sail hauen kargura:

1.0910.130.461.01.01.2019: 13.431,40 €.

1.0910.130.761.01.01.2019: 147.492,17 €.

1.0910.130.770.00.01.2019: 12.489,65 €.

*Bigarren.* II. eranskinean aipatzen diren eskaerak ezestea, adierazten diren arrazoiengatik.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute, zuzenean, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, argitarapenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.»

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2019ko ekainaren 14a.—Alberto Arana Rod, idazkari teknikoa. (4036)

centaje del coste total del proyecto que se va a subvencionar y el importe máximo de la ayuda concedida, teniendo en cuenta que conforme a la base 7.ª3 la cuantía de la subvención concedida por proyecto se establece en un porcentaje del importe, IVA excluido, de los gastos subvencionables proporcional al número de puntos obtenidos en aplicación de los criterios de valoración definidos en el punto primero de la presente base. En cualquier caso, ésta no podrá superar el 75 % de los gastos subvencionables en el caso de estudios y planes ni del 50 % en el caso de inversiones en instalaciones de energías renovables, ni de un máximo de 30.000 euros por solicitud. Asimismo, no podrán acogerse a la presente convocatoria de subvenciones aquellas actuaciones cuyo coste subvencionable sea inferior a 3.000 euros (IVA no incluido).

Asimismo establece la citada base 8.ª que para aquellas actuaciones a las que se deniegue la subvención se indicará la causa de dicha denegación.

El apartado 4 del anexo IV que recoge la convocatoria 2019 de las subvenciones señala que al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre de 2015 de Procedimiento Administrativo Común, la resolución de concesión será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

Asimismo con la citada publicación se da cumplimiento a la obligación de dar publicidad a las subvenciones concedidas, prevista en el artículo 17.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En consecuencia, este Diputado Foral de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas,

RESUELVE

*Primero.* Conceder las subvenciones que se señalan en el anexo I de esta orden foral, correspondientes a la convocatoria 2019 de subvenciones para el impulso a nivel local del uso de las energías renovables así como del ahorro y la eficiencia energética, disponiendo a favor de las entidades beneficiarias, por los importes parciales que se indican, un gasto de ciento setenta y tres mil cuatrocientos trece euros con veintidós céntimos (173.413,22 €) con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

1.0910.130.461.01.01.2019: 13.431,40 €.

1.0910.130.761.01.01.2019: 147.492,17 €.

1.0910.130.770.00.01.2019: 12.489,65 €.

*Segundo.* Desestimar las solicitudes que se indica en el anexo II, por los motivos que se señalan.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este Diputado Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.»

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 14 de junio de 2019.—El secretario técnico, Alberto Arana Rod. (4036)

EK\CV GAO-I-2019-04036

I. ERANSKINA

— *Erakunde onuraduna:* Donostiako Udala.
*Espedientearen zk.:* 2019-EFIC-000001-01.
*Proiektua:* Suhiltzaile parkea FV autohornikuntza.
*Gastu lagungarria:* 58.812,00 €.
*Diruz lagundutako ehunekoa:* % 50.
*Diru laguntzaren gehienezko zenbatekoa:* 29.406,00 €.
*1.0910.130.761.01.01.2019:* 29.406,00 €.

— *Erakunde onuraduna:* Asteasuko Udala.
*Espedientearen zk.:* 2019-EFIC-000002-01.
*Proiektua:* Asteasuko herrigunean mikrosare elektriko eta termikoa eraikitzeko (1. Fasea).
*Gastu lagungarria:* 42.315,45 €.
*Diruz lagundutako ehunekoa:* % 44.
*Diru laguntzaren gehienezko zenbatekoa:* 18.618,80 €.
*1.0910.130. 761.01.01.2019:* 18.618,80 €.

— *Erakunde onuraduna:* Orioko Udala.
*Espedientearen zk.:* 2019-EFIC-000003-01.
*Proiektua:* Kanpineko ur beroaren ekoizpen sistema aldatu.
*Gastu lagungarria:* 25.000,00 €.
*Diruz lagundutako ehunekoa:* % 43,17.
*Diru laguntzaren gehienezko zenbatekoa:* 10.792,50 €.
*1.0910.130.761.01.01.2019:* 10.792,50.

— *Erakunde onuraduna:* Alegiako Udala.
*Espedientearen zk.:* 2019-EFIC-000004-01.
*Proiektua:* Eraikin publikoetan eguzki energía instalazioak ezartzeko bideragarritasun plana.
*Gastu lagungarria:* 3.108,53 €.
*Diruz lagundutako ehunekoa:* % 75.
*Diru laguntzaren gehienezko zenbatekoa:* 2.331,40 €.
*1.0910.130.461.01.01.2019:* 2.331,40 €.

— *Erakunde onuraduna:* Orexako Udala.
*Espedientearen zk.:* 2019-EFIC-000005-01.
*Proiektua:* Udal eraikin zaharrean, autokontsumoko eguzki instalazio fotoboltaikoa egitea.
*Gastu lagungarria:* 23.212,51 €.
*Diruz lagundutako ehunekoa:* % 50.
*Diru laguntzaren gehienezko zenbatekoa:* 11.606,26 €.
*1.0910.130.761.01.01.2019:* 11.606,26 €.

— *Erakunde onuraduna:* Berastegiko Udala.
*Espedientearen zk.:* 2019-EFIC-000006-01.
*Proiektua:* Ategi eraikinean autokontsumoko instalazio fotoboltaikoa egitea.
Gastu lagungarria: 12.920,00 €.
*Diruz lagundutako ehunekoa:* % 50.
*Diru laguntzaren gehienezko zenbatekoa:* 6.460,00 €.
*1.0910.130.761.01.01.2019:* 6.460,00 €.

— *Erakunde onuraduna:* Errenteriako Udala.
*Espedientearen zk.:* 2019-EFIC-000008-01.
*Proiektua:* Plaka fotoboltaikoak Lekuona kultur zentroan.
*Gastu lagungarria:* 30.877,53 €.
*Diruz lagundutako ehunekoa:* % 50.
*Diru laguntzaren gehienezko zenbatekoa:* 15.438,77 €.
*1.0910.130.761.01.01.2019:* 15.438,77 €.

— *Erakunde onuraduna:* Hernaniko Udala.
*Espedientearen zk.:* 2019-EFIC-000009-01.
*Proiektua:* Inguratzaile termikoen diagnosi-azterketak.
*Gastu lagungarria:* 14.800,00 €.
*Diruz lagundutako ehunekoa:* % 75.
*Diru laguntzaren gehienezko zenbatekoa:* 11.000,00 €.
*1.0910.130.461.01.01.2019:* 11.000,00 €.

ANEXO I

— *Entidad beneficiaria:* Ayuntamiento de Donostia.
*N.º expediente:* 2019-EFIC-000001-01.
*Proyecto:* Parque de bomberos: instalación fotovoltaica para autoconsumo.
*Gasto subvencionable:* 58.812,00 €.
*Porcentaje subvencionado:* 50 %.
*Importe máximo de la subvención:* 29.406,00 €.
*1.0910.130.761.01.01.2019:* 29.406,00 €.

— *Entidad beneficiaria:* Ayuntamiento de Asteasu.
*N.º expediente:* 2019-EFIC-000002-01.
*Proyecto:* Construcción de una microred eléctrica y térmica.
*Gasto subvencionable:* 42.315,45 €.
*Porcentaje subvencionado:* 44 %.
*Importe máximo de la subvención:* 18.618,80 €.
*1.0910.130.761.01.01.2019:* 18.618,80 €.

— *Entidad beneficiaria:* Ayuntamiento de Orio.
*N.º expediente:* 2019-EFIC-000003-01.
*Proyecto:* Cambiar el sistema de producción de agua caliente en el camping.
*Gasto subvencionable:* 25.000,00 €.
*Porcentaje subvencionado:* 43,17 %.
*Importe máximo de la subvención:* 10.792,50 €.
*1.0910.130.761.01.01.2019:* 10.792,50.

— *Entidad beneficiaria:* Ayuntamiento de Alegia.
*N.º expediente:* 2019-EFIC-000004-01.
*Proyecto:* Plan de viabilidad para colocar instalaciones de energía solar en los edificios públicos.
*Gasto subvencionable:* 3.108,53 €.
*Porcentaje subvencionado:* 75 %.
*Importe máximo de la subvención:* 2.331,40 €.
*1.0910.130.461.01.01.2019:* 2.331,40 €.

— *Entidad beneficiaria:* Ayuntamiento de Orexa.
*N.º expediente:* 2019-EFIC-000005-01.
*Proyecto:* Instalación solar fotovoltaica para autoconsumo en el edificio viejo del Ayuntamiento.
*Gasto subvencionable:* 23.212,51 €.
*Porcentaje subvencionado:* 50 %.
*Importe máximo de la subvención:* 11.606,26 €.
*1.0910.130.761.01.01.2019:* 11.606,26 €.

— *Entidad beneficiaria:* Ayuntamiento de Berastegi.
*N.º expediente:* 2019-EFIC-000006-01.
*Proyecto:* Instalación fotovoltaica para autoconsumo en el edificio Ategi.
*Gasto subvencionable:* 12.920,00 €.
*Porcentaje subvencionado:* 50 %.
*Importe máximo de la subvención:* 6.460,00 €.
*1.0910.130.761.01.01.2019:* 6.460,00 €.

— *Entidad beneficiaria:* Ayuntamiento de Errenteria.
*N.º expediente:* 2019-EFIC-000008-01.
*Proyecto:* Placas fotovoltaicas en el centro cultural Lekuona.
*Gasto subvencionable:* 30.877,53 €.
*Porcentaje subvencionado:* 50 %.
*Importe máximo de la subvención:* 15.438,77 €.
*1.0910.130.761.01.01.2019:* 15.438,77 €.

— *Entidad beneficiaria:* Ayuntamiento de Hernani.
*N.º expediente:* 2019-EFIC-000009-01.
*Proyecto:* Estudios diagnósticos de las envolventes térmicas.
*Gasto subvencionable:* 14.800,00 €.
*Porcentaje subvencionado:* 75 %.
*Importe máximo de la subvención:* 11.100,00 €.
*1.0910.130.461.01.01.2019:* 11.100,00 €.

EK\CV GAO-I-2019-04036

— *Erakunde onuraduna:* Tolosaldea Garatzen SA.
*Espedientearen zk.:* 2019-EFIC-000010-01.
*Proiektua:* Lehiberri instalazio fotoboltaikoa.
*Gastu lagungarria:* 24.979,30 €.
*Diruz lagundutako ehunekoa:* % 50.
*Diru laguntzaren gehienezko zenbatekoa:* 12.489,65 €.
*1.0910.130.770.00.01.2019:* 12.489,65 €.

— *Erakunde onuraduna:* Tolosako Udala.
*Espedientearen zk.:* 2019-EFIC-000012-01.
*Proiektua:* Ferialekuan eguzki plaken instalazioa.
*Gastu lagungarria:* 91.411,00 €.
*Diruz lagundutako ehunekoa:* % 32,82.
*Diru laguntzaren gehienezko zenbatekoa:* 30.000,00 €.
*1.0910.130.761.01.01.2019:* 30.000,00 €.

— *Erakunde onuraduna:* Leintz-Gatzagako Udala.
*Espedientearen zk.:* 2019-EFIC-000013-01.
*Proiektua:* Gatz museoko biomasa bero sarea.

*Gastu lagungarria:* 50.339,67 €.
*Diruz lagundutako ehunekoa:* % 50.
*Diru laguntzaren gehienezko zenbatekoa:* 25.169,84 €.
*1.0910.130.761.01.01.2019:* 25.169,84 €.

II. ERANSKINA

— *Eskatzailea:* Bergarako Udala.
*Espediente zk.:* 2019-EFIC-000007-01.
*Proiektua:* Bergarako Udaleko jasangarritasun energetikoa politika publikoan txertatzeko 3 ekintzen azterlana.
*Ezestearen arrazoia:* Aurkeztu dituen hiru jarduketatik, 1. jarduketa ez dago dirulaguntza jaso dezaketen ekintzen artean, dirulaguntzen oinarri arautzaileetako 1.1 oinarriaren arabera; eta, gainera, jarduketa horren kostua 7.3 oinarriak ezartzen duen gutxienekoa baino txikiagoa da.
1.2 oinarri arautzailearen arabera, 2. jarduketa –ziurtagiri energetikoa lortzea– eta 3. jarduketa –San Joxepe zahar egoitzaren argiztapen proiektua idaztea– dirulaguntzen kanpo daude.

— *Eskatzailea:* Debako Udala.
*Espediente zk.:* 2019-EFIC-000011-01.
*Proiektua:* Casacampo eremuko eguzki farolak berriztatzea eta monitorizatzea.
*Ezestearen arrazoia:* Ez da instalazio berri baterako inbertsio bat, ezta handitze baterako ere, baizik eta egun dagoen instalazio bat berriztatzeko. Gainera, 12.4 oinarri arautzailearen arabera, ez dira diruz lagungarriak izango instalazioak eta ekipoak mantentzeko, egokitzeko eta konpontzeko inbertsioak.

— *Entidad beneficiaria:* Tolosaldea Garatzen SA.
*N.º expediente:* 2019-EFIC-000010-01.
*Proyecto:* Instalación fotovoltaica en Lehiberri.
*Gasto subvencionable:* 24.979,30 €.
*Porcentaje subvencionado:* 50 %.
*Importe máximo de la subvención:* 12.489,65 €.
*1.0910.130.770.00.01.2019:* 12.489,65 €.

— *Entidad beneficiaria:* Ayuntamiento de Tolosa.
*N.º expediente:* 2019-EFIC-000012-01.
*Proyecto:* Instalación de placas solares en.
*Gasto subvencionable:* 91.411,00 €.
*Porcentaje subvencionado:* 32,82 %.
*Importe máximo de la subvención:* 30.000,00 €.
*1.0910.130.761.01.01.2019:* 30.000,00 €.

— *Entidad beneficiaria:* Ayuntamiento de Leintz-Gatzaga.
*N.º expediente:* 2019-EFIC-000013-01.
*Proyecto:* Red de calefacción por biomasa en el museo de la sal.
*Gasto subvencionable:* 50.339,67 €.
*Porcentaje subvencionado:* 50 %.
*Importe máximo de la subvención:* 25.169,84 €.
*1.0910.130.761.01.01.2019:* 25.169,84 €.

ANEXO II

— *Entidad solicitante:* Ayuntamiento de Bergara.
*N.º expediente:* 2019-EFIC-000007-01.
*Proyecto:* Estudio de 3 acciones para incorporar la sostenibilidad energética en la política pública del Ayuntamiento de Bergara.
*Motivo de desestimación:* De las tres actuaciones que presenta, la actuación 1 –inventario energético de edificios y automóviles– no se encuentra entre las consideradas subvencionables en la base reguladora 1.1 y además su coste subvencionable (1.320 euros) es inferior al mínimo establecido en la base 7.3.
Las actuaciones 2 –obtención de certificado energético– y 3 –redacción del proyecto de iluminación de la residencia San Joxepe– se encuentran excluidas según la base reguladora 1.2.

— *Entidad solicitante:* Ayuntamiento de Deba.
*N.º expediente:* 2019-EFIC-000011-01.
*Proyecto:* Renovación y monitorización de las farolas solares de la zona de Casacampo.
*Motivo de desestimación:* No es una inversión en una instalación nueva ni en una ampliación, sino una renovación de una ya existente. Además, según la base reguladora 12.4 no son objeto de subvención las inversiones en reparación, adecuación y mantenimiento de equipos e instalaciones.


EK\CV GAO-I-2019-04036